

Laudion, 2024ko urriaren 9an

Laudiok Auzo Batzarren ziklo berri bati ekingo dio urriaren 23an

Oraingo honetan, laudioarrek Auzo Kontseiluek egin duten lanari buruzko hausnarketa egingo dute, abian jarri diren proiektuen egoera ezagutuko dute, eta 2025eko aurrekontu kolaboratiboen aurrerapena jarriko da mahai gainean

Urriaren 23tik azaroaren 20ra bitartean, Laudioko bizilagunek Auzo Batzarren ziklo berri batetan modu aktiboan parte hartzeko aukera izango dute beren inguruneari eragiten dioten erabakiak hartuz. "Entzuteko guneak sortzeaz gain, batzar hauekin herritarren eta udalaren arteko lankidetzaz indartzea bilatzen dugu. Pertsonak gure eguneroko kudeaketaren erdian daude; herritarren parte-hartzearekin dugun konpromisoa eta elkarlana egiteko dugun borondatea argia eta irmoa da", azpimarratu du Laudioko alkatea den Ainize Gastakak.

Oraingo honetan, eta 2022an onartutako [Gardentasunerako eta Herritarren Parte-Hartzerako Araudia](#) sendotze aldera (udal-politika publikoen eremuan herritarrei informazioa emateko eta esku hartzeko moduak, bitartekoak eta prozedurak arautzen ditu); aldeztu aurretik hainbat bilera egin dira zortzi auzo-kontseiluekin, eremu bakoitzean joan den urtean jasotako proposamenetan oinarrituta ekintzak "modu eraginkorren" koordinatzeko eta abian jartzeko. "Foro hori funtsezkoa da

Batzarretan sortutako ideiei jarraipena emateko eta herritarren beharrak ekintza zehatzetan gauzatzen direla ziurtatzeko", nabarmendu du alkateak.

Gauzak horrela, hurrengo batzarretan audioarrek Auzo Kontseiluek egin duten lanari buruzko hausnarketa egingo dute, eta iaz jasotako proposamenetan oinarrituta abian jarri diren proiektuen egoera ezagutuko dute. Era berean, 2025eko aurrekontu kolaboratiboen aurrerapena jarriko da mahai gainean, eta, berritasun gisa, auzo bakoitzeko monografiko bat aurkeztuko da gune bakoitzaren gai garrantzitsuenak jorratzeko.

Horrela, eta Auzo Kontseiluekin monografikoen behin betiko gaiak zehaztu arte, aztertzeko proposatzen diren gaiak hauek dira: erdigunean zaratari buruzko bat, Gardean Santa Cruz berdegunea jorratzen duen beste bat, Aretan gasolindegia, Arrañon interneterako konexioa eta Latiarron Jesus Guridi plaza. Ugarte auzoari dagokionez, dokumentuak kirol-zelaiaren estalkia jorratuko luke; landa-eremuan, berriz, bolatokia, eta Landaluzen, bizilagunentzako lokal bat egokitzeko proiektua.

Sesiones hasta el 20 de noviembre

Batzarretan biltzen lehenak landa-inguruetako bizilagunak izango dira (urriaren 23an). Ondoren, Gardean (urriak 30), Landaluzen (azaroak 4), Aretan (azaroak 6), erdialdean (azaroak 11), Arrañon (azaroak 13), Latiarron (azaroak 18) eta Ugarten (azaroak 20) bizi diren pertsonak bilduko dira. Saio guztiak 18:30ean izango dira.

- **Landa:** urriak 23, 18:30. Arraño Gela - Kultur Etxea.
- **Gardea:** urriak 30, 18:30. Gardeako zentro soziala
- **Landaluze:** azaroak 4, 18:30. Arraño Gela - Kultur Etxea.

- **Areta:** azaroak 6, 18:30. Aretako Kultur Etxea.
- **Erdigunea:** azaroak 11, 18:30. Kasinoa.
- **Arraño:** azaroak 13, 18:30. Arraño Gela - Kultur Etxea.
- **Latorro:** azaroak 18, 18:30. Latorroko Ikastetxea.
- **Ugarte:** azaroak 20, 18:30. Lezeaga Aretoa.

Udalak, bere aldetik, herritar guztiak animatu nahi ditu batzar horietan aktiboki parte hartzera, inplikazioa funtsezkoa delako komunitate-ehuna indartzeko eta udalerriko bizi-kalitatea hobetzeko. Pertsona guztien asistentzia eta inklusioa bermatzeko, haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da. Zerbitzu hau erabili nahi duten pertsonak partaidetza@audio.eus helbide elektronikoaren bidez edo 688 80 01 32 telefono zenbakira deitu beharko dute. Zerbitzua batzarraren aurreko egunerarte eskatu ahal izango da.